



76/2024 EBAZPENA, FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIARENA, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEAK HAUTATZEKO ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BETETZEKO ARAUDIA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA AURRETIKO KONTSULTAREN MENDE JARTZEKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, arau-xedapenaren proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da. Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaiak deklaratu zuen artikulua horren gainerakoa eskumenen ordena konstituzionalaren aurkako zela, eta, ondorioz, ezin zitzaion autonomia-erkidegoei aplikatu.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, 11. artikuluan, herritarrei egingo zaien alde aurretiko kontsultaren prozedura eta edukia garatu ditu:

1. Xedapen orokorraren izapidetza sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, behar diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, administrazio langile zein herritarra izan.

2. Alde aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako molde egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3. Alde aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetza sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan bideratzen ari dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraikiz.

Egin nahi den dekretu-proiektuaren xedeari dagokionez, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak betetze- eta hautatze-arloko hainbat alderdi erregelamendu bidez garatzea eskatzen du; alderdi horiek ebazpen honi atxikitako eranskinean zehaztu eta justifikatzen dira.



Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Kotsulta publikoaren izapidearen mende jartzea EAEko sektore publikoko langileak hautatzeko eta EAEko sektore publikoko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen dekretu-proiektua, hura egin aurretik.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi badute, hogeit egun balioduneko epean helarazi ahalko dituzte ebazpen honetan azaltzen diren alderdiei buruzko iritziak, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Era berean, informazio bera Legegunean egongo da ikusgai, eta gobernu irekiaren Irekia plataformara eramango da.

JUAN M<sup>a</sup> BARASORDA GOICOECHEA

FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA

ERANSKINA: EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEAK HAUTATZEKO ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK BETETZEKO ARAUDIA ONARTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUARI BURUZKO AURRETIKO KONTSULTA

1.- Ekimen arauemaile honen bidez konpondu nahi diren arazoak.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Lege berriak funtsezko aldaketa batzuk proposatzen ditu funtzio publikoaren sistema tradizionalaren oinarriko zenbait elementutan, azken urte hauetan enplegu publikoa artikulatzen duen arau-testuinguruaren ondorioz; izan ere, enplegu publikoaren ikuskera irekia ezartzen da bertan, eta horrek aukera ematen du arau-garapenerako tarte nahiko zabalak izateko, batez ere egiturazko gaiei buruzko alderdietan edo enplegu publikoaren harremanetan dimentsio objektiboa dutenetan.

Egiturazko elementu horiek denek eskatzen dute autonomia-erkidegoko legegileak defini ditzala haien irismena eta funtzioa. Hortik, beraz, Euskal Enplegu Publikoaren Lege berria onestearen garrantzia, aktibatu egingo ditu-eta alderdirik berritzaileenak: zuzendaritza publiko profesionala, karrera profesionala, jardunaren ebaluazioa, ordainsarien sistema eta lanpostuak betetzeko sistemak.

Horretarako, lege berriak tarte zabalak utzi ditu bere eremuan sartzen den administrazio publiko orok erabakiak hartu ahal izan ditzan, betiere negoziazio kolektiboak enplegu publikoan duen tarte eta legeak definitu dituen elementu komunak errespetatuta, haietako bakoitzaren premiak konpontze aldera, alde batera utzi gabe enplegu publikoaren eredu erkidea taxutzea, bere osoan.

Hala, 11/2022 Legearen 1.3 artikulua ezartzen duenez, EAEko enplegu publikoaren erregulazioa eta hura osatzen duten langileen araubide juridikoa bertan jasotako xedapenek eta hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenek definitzen dute.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Lege horren 9. artikulua ahala ematen dio erregelamenduak egin ditzan, EAEko administrazio publikoen organo erkidea den aldetik, enplegu publikoa arautzen duten legeak garatzeko, bai eta Legeari erreserbatuta ez dauden gaietan ere. Era berean, azken xedapenetako bigarrenak arauak emateko gaikuntza bat ezartzen du, eta horren bidez, enplegatu publikoen araubide juridikoari buruz lege-erreserbaren xede diren gaietan salbu, Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hori garatzeko beharrezkotzat jotzen diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Halaber, Eusko Jaurlaritza organo erkidea da, baldin eta lege horrek berariaz xedatzen badu EAEko administrazio publiko guztiei aplikatu beharreko erregelamendu-mailako arauak eman daitezkeela.

Alde horretatik, dekretu proiektu honek betetze- eta hautatze-prozeduren prozedura-alderdi zehatzenak arautu nahi ditu, araudi berrira egokitzeko, eta Lanpostuak betetzeko Erregelamendua (190/2004 Dekretua, urriaren 13koa) eta haren aldaketa (170/2006 Dekretua, irailaren 12koa) indargabetzea ekarriko du; azken horrek lanpostuak betetzeko sistemak (lehiaketa eta izendapen askea) eta giza baliabideen kudeaketa malgutzeko neurri gisa langileak

birbanatzea eta berresleitzea arautzen ditu, eta lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako betetzeko oinarriak ezartzen ditu.

Finean, dekretu-proiektu honekin konpondu nahi den arazo nagusia zaharkituta geratu diren gaur egungo betetze- eta hautatze-sistemak araudi berrira egokitzea da, kalitatezko zerbitzu publikoak ematea bermatzeko.

## 2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

Administrazio publikoa modernizatzea eta hobetzea helburu iraunkorra izan da hainbat etapatan, eta beharrezkoa izan da konstituzio-agindua betetzeko; hau da, interes orokorren zerbitzura jarduteko administrazio eraginkor bat izatea.

Zerbitzu publikoak modernizatzeko eta haien kalitatea hobetzeko helburu horiek guztiak ezin dira lortu administrazioaren aktibo nagusia (giza kapitala) ez bada behar bezala kudeatzen.

Horri dagokionez, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina aldatu zuenak, ezartzen du egiturazko behin-behinekotasunaren tasak ehuneko 8tik behera egon behar duela Espainiako administrazio publiko guztietan, eta hiru dimentsiotan jardun beharra dagoela: berehalako neurriak hartzea dagoen behin-behinekotasun handia konpontzeko, neurri eraginkorrak artikulatzea etorkizunean behin-behinekotasunaren abusua eta iruzurra prebenitzeko eta zigortzeko, eta, azkenik, giza baliabideak hobeto kudeatzeko tresnak eta plangintzaren kultura sustatzea.

Egiturazko behin-behinekotasuna % 8tik behera mantentzeko betebeharrak horrek hautatze- eta betetze-prozedura arinagoak eta efizienteagoak diseinatzera behartzen du, juridikoki seguruak eta enplegu publikoarentzat berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipio konstituzionalak bermatuko dituztenak.

Administrazio publikoen zerbitzura dagoen enpleguaren kudeaketa hobeak, zalantzarik gabe, izaera iraunkorreko baliabideak hornitzeko politika koherenteak eta arrazionalak izatea eskatzen du, zerbitzuen benetako beharrak asetzeko eta behin-behinekotasuna premia koiunturalei soilik erantzutera mugatzeko.

Finean, dekretu-proiektu honen helburua da tresna juridiko eraginkorrak ematea aplikagarri izango zaien administrazio publikoei, helburuak lortzeko giza baliabide egokienak izan ditzaten, eta, aldi berean, enplegatu publikoentzat motibagarria izango den lan-ingurunea ahalbidetzea, herritarren eskubideak bermatzeko funtzio publikoetarako irispidean.

## 3.- Egin nahi den arau-proiektuaren xedeak.

Urteetan zehar egiaztatu da ez dela beti egon lanpostu hutsak behin betiko betetzeko aldi behingo deialdi sistematikoak egiteko praktika egonkorrik (ahal dela, urtero egin beharrekoa). Era berean, ohiko deialdirik ezaren arrazoia da enplegu publikora iristeko prozedurak, kasu

askotan, ez direla garatzen behar bezain arin eta azkar, prozedura horiei berez dagozkien bermeak eta konstituzio- eta lege-printzipioak errespetatuz, arrazoizko denboran langilez hornitzea ahalbidetzeko eta administrazioak zerbitzua emango duela bermatzeko.

Gauzak horrela, hautatze-prozesuak mantsoegiak eta denboran luzeegiak dira, eta horrek, kasu askotan, lanpostuak aldi baterako betetzeko beharra dakar, benetan bete arte. Baldintza horietan, bitarteko langileak izendatu eta aldi baterako langileak kontratatzea antolaketa-aukera bat izan da, eta, azkenean, horrek behin-behinekotasuna gehiegi handitzea ekarri du aurreko atalean adierazi den bezala.

Dekretu-proiektu honen xede zehatzak dira, lehenengo apartatuan deskribatutako arazoak saihesteaz gain, alferrikako izapideak ezabatzea, hautatze-tresna arin, eraginkor eta efiziente berriak sortzea eta hautatze-organo iraunkorra sortzea eta arautzea, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 82. artikuluan jasotako xedapena betez.

4.- Bestelako aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Ez jarduteko agertokia ez da egokia; izan ere, lehenengo apartatuan garatu den bezala, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak arlo hori erregelamendu bidez garatzea eskatzen du.